

GURE ANDERE GEIA

ACTE I

SCENE I

ELOIX:

Intxauspeko alaba dendaria
Ha Intxauspeko alaba dendaria
Ni andere gei pare gabia
Hatxemandut hatxemandut
Gizongei pare gabea, xoragarria
Miletan ez bait parerik

SCENE II

JEANNE MARIE: (*ixila*) Agur andere Eloix, huna hitzeman lana. Ahal bezain ontsa brodatu ditut zure mokanesak.

ELOIX: Ez da goizegi? Jana Marie. Dena den mila ezker Jana Marie.

JEANNE MARIE: Haatik zoin alegera zin andere Eloix eta nola aphaitzen eta edertzen duzun zure burua.

ELOIX: Ez dakizua gizon geia badutala... Eta xarmanta gero... espos eguna laster. Segur ukhanen baitugu phesta bat xoragarria.

JEANNE MARIE: Ba othe... Izan ditakea hain laster trenkatzen duzun afer a hori?

ELOIX: Zer bada, J. Marie. Ez niz, ez ni, zu bezalako tonto horietarik... Bethi beldut, bethi nerabe... Ni ez niz mutxurdin egongo... Orai 21 urthe nahi niz ezkondu... Nahi izaitea aski ma chère eta abian hatxeman dut ene xoria, ene merla, «an dancing des Tilleuls argentés»... Aditu duzia J. Marie?...

JEANNE MARIE: Iza ditakea?... Hoin laster... Eta holakoa?

ELOIX: Zer izaditakea... Ez duzu bertze erraitekorik niri, nik holako segetu handia zuri erraiten eta? Zer neska trukesa... (*besotik har eta inharrosten du*) Errazu bederen eni konplimenduak... Atsain dut zure zorionaz... Zer gizon xarmanta aurkihi duzun eta holako... Ah J. Marie tristea... Zu... Mutxurdin bizi eta mutxurdin hilen... Bethi amabitxiren altzoetan, ez baitakizu zer den ez nun den le «dancing des Tilleuls argentés».

JEANNE MARIE: Ez behar ere...

SCENE III

Eloix, J. Marie eta Delfina

Norbaitek bortha jotzen du

DELFINA: (*kanpotik denbora berean*) Hor zirea andere Eloix?

ELOIX: Sar zite, sar Delfina... Aspaldian zure beha nago.

DELFINA: (*zapeta pare bat bortatik khenduz*) Dame [...] dauzkitzut galdata zintuen zapetak..

ELOIX: Ez da goizegi... Orai nahi dena ez ditake izan abian... Zer pazientzia behar den...

JEANNE MARIE: Ba eta zuk laburra.

ELOIX: Ba bainan, zu bezelako talo eta ophil batekin bortxaz galtzen da. Hean, zapeta horiek nola ditudan (*sartzen da Delfina*)

DELFINA: (*Belhaunikatua haren oinetan... oihal bat hedatzen du...*) Hean, ikhus ontsa dituzunez... izarikoak hartu ditut N 38 zango fina... eta larru goxoa, azken modakoak.

ELOIX: Ikhus... (*elle s'assoit*) presatua naiz... Arratsean 8 orenetan aurkhitu behar naiz au «dancinc des tulleuls argentés».

DELFINA: Badea berriagorik andere Eloix... Han, hemenka diote andere Eloix ezkontzen dela... Hatxemaiten zaitut biziki alegera eta egia erran biziki ederra...

JEANNE MARIE: Hala da, Andere Eloixek ostian erran daut.

ELOIX: Xo J. Maire utz ni khontatzerat... Ba egia da, hatxemandut gizon gei bat pare gabekoa... Hor au dancing des tilleuls argentés ezin ahantzizko tokian, ohartua nintzen bazela jaun gazte bat baina fina... xarmanta... Komitatu nu dantzan artzerat... Zoin gisakoak... Galanta, konplimendu pollitez bethea. Ez gizon hartz horietarik... dantzan artzean beren zapera phizuekin erhiak lehertze dituzten horietarik... (*zapetak entzeazearekin, sobera bortxatzen du zangoa*) Atx, atx, neskatokoa... ar zite eztikiago... min egiten dautazu...

DELFINA: Bainan, berma zite anderea... phusa zazu zangoa... Bortxa, phixka bat... gero plegua hartzen dute berek...

ELOIX: (*khexu*) Ba zuek botiesek, zuen phuskak jender bortxaz kokatu nahi duzue.

JEANNE MARIE: Eta gero andere Eloix, nola bururatuko duzu zure afera...

ELOIX: Ha, ha... J. Marie alehia deus... Zoin kuriosa... Hots, holako jaun pare gabea ikhusi eta, hoin gisakoa... Holako begitarte argikoa, ezagutu dut ez zitakela izan enetako gizon gei hobeagorik... Frantsesek dioten bezala «le coup de foudre izan dut». Elgar maite dugu eta baitezpada behar dugu ezkondu (*Delfinak azkarkiegi phusatzen dako zapeta*) Ai, ai, ai... (*phusatzen du Delfina lurrerat*) Ez dut nahi holakorik.

JEANNE MARIE: (*ramasse la chaussure et la donna à Delfine*) Oizu Delfina (*s'adressant à Eloix*) Agian ez duzu holakorik eginen gizonari.

ELOIX: Zaude trankil J. Marie ez dut holako egiterik ukhanen, zeren ene lagun maiteak eginen baitutu nik nahi ditudan guziak...

DELFINA: (*se levant*) Bertze pare bat ekharriko daitzut andere Eloix.

ELOIX: Ba erna zite, erna... aratseko behar dut, ene gizon geia ene beha egonen baita au dancing.

DELFINA: Laster batez banoa... Aldi huntan ekharriko daukitzut zure gostukoak (*elle sort*)

ELOIX: Agian bai. Halere zik bethi elhe ederra bainan phuskak...

JEANNE MARIE: To... andere Eloix heldu zautzu Margot, konplimenduekin segura (*elle sort*)

ELOIX: Akhula zazu Delfina eta azkarki oraino. Ze ba erna bedi (*elle chante ici un air de danse*)

SCENE IV

Eloix et Margin (*coquette comme Eloix*)

MARGOT: Bethi alegera... Ez niz harritzen. Zer aditur ene adixkide miba ezkontzen dela... Berria ari da hedatzen sua larrean bezala.

ELOIX: (*d'un saut elle embrasse Margot*) Ene Margot, gure afera hain fite trenkatua diun, nun ez baitut denborarik izan ene adixkide minari pharte emaiteko.

MARGOT: Alo... Khondazan zerbai... Nor den... Nola deitzen den... Zer gazte den eta holako...

ELOIX: Xarmanta, paregabea.

MARGOT: Ez dun dudarik, hautatu dudanz gainean.

ELOIX: Ene gizon geia deitzen dun... Gaston... Gaston Guiberteau.

MARGOT: Gaston... Gaston Guiberneau... Zoin izen goxoa.

ELOIX: Eh ba, izen xoragarria. Gaston... Gaston... Iduri din ezta ahoan... Musika beharrietan... Ez izen truker horietarik ez... Manez...Pello... Piarres... Mattin eta holako...Bainan Gaston Gaston...

MARGOT: Eta itxura?...

ELOIX: Perla bezain fina... Ez dun gizon kankail horietarik... Ez eta ere gizon ttipi iringarri horietarik, are gutiago tripa handi horietarik... Baina fina... Xuta...

MARGOT: Beraz hainbait andere...

ELOIX: Den gutiena pipherra saltsan bezala... Ile beltz kuskulatu batekin.

MARGOT: Frantsesek dioten bezala accroche coeur...

ELOIX: Bisaiako larrua, ez zuri, bainan «blanc mat» so ezta, sarkhorra, khantuak dion bezaia begiak izarren parekoak.Bainan aski hortatiria hintazke...

MARGOT: Hire zorionaz, sekulan ene Eloix maitea. Bainan zer ofizio du... zer kondizionetako du...

ELOIX: Nik nahi bezelaxoa... Ez laborari ezku zikhin horietarik, ez eta ere negoziante horietarik bethi café eta makallau uzain berekin khareatzen duten horietarik, bainan lumadun bat, esku xuri eta fin batzuekin. Bankoetako jaun horietarik, gero urthetik urtherat jaun handi bilhakatu dena, trésorier, directeur de banque han edo hemen, hiri handienetan, etxe ederrenetan, eta gero ez othe da izanen directeur de la Banque de France, minixtroaren ondotik lehen soltsero...

MARGOT: Ametsa...

ELOIX: Ametsa?... Ametsa?... Errealia, ikhusiko duguna.

MARGOT: Eta zer dio hire ama? Aipatu dakona?...

ELOIX: Ba... Ama... Ama gaixoak nik nahi dudana eginen din, ttipi, ttipitik hala usatua dinat. Bertze alde aita eta amek zer dakite?...

MARGOT: Ba, leheneko jendetarik aitun, leheneko modekoak.

ELOIX: Ez deus batek izltuak... bethi dudan... Guri dun heien heztez.

MARGOT: Ba, ba nahi gitine ibil arazi bethi bi urthetan bezala.

ELOIX: Anjeluseko etxerat.

MARGOT: Ho, aspaldian erot gora emanak tiun manera horiek.

ELOIX: Ez ninan segur ene Gaston maitea ezagutuko amaren erraneri jarraiki banintz.

MARGOT: Ez othe gira aski handi gure buruen zaintzeko.

ELOIX: Zer dakite bada ama gaixo horiek, 14 urthetran baginankinan horiek baino gehiago.

SCENE V

Eloix, Margot, Ama

AMA: (*Kanpotik*) Eloix, Eloix, nun zira haurra?...

ELOIX: (*à Margot*) ikhusten dun ez dun bakerik hemen

AMA: (*rentrant*) Nun zinen ba, ene Eloix?...

ELOIX: Ez niz ez urthua oraino

AMA: Agur Margaita, ene Eloixen adixkide mina, Eloix jalitzekoa baita eta ez dakit zer tenoraino, zainduko duzu bide horietan

ELOIX: Zer angeru begiralea hautatu duzuna, nik baino beharago luke berak. Bainan biziiki presatua niz Delfinaren behanago zapeta berien jauntzeko, sari ene Gaston maitearekin zinemarat joateko. Badakizu gaur hautzen dugula espos eguna... Aphilaren akhabantzian naski...

AMA: Bainan, bainan Eloix, zer duzu holako gauza finkatzen gehiago phizatu gabe?...

ELOIX: Zer nahi duzu ileak xuritu artio egon nadin karkuletan...

MARGOT: Okasionea delarik etxeko anderean behar da baliatu

AMA: Okasionea, Okasionea... Nik dakita zer gizon gei duen, ez daut oraino presentatua ere...

ELOIX: Bainan, ama hautatu dudana gainean, badakizu perfeta dela... Eta gero, ni niz ezkontzen ez eta zu

MARGOT: Allo Allo Zer phentsatzen tiuzu?

ELOIX: (*doucement embrassant la mere*) Ama... orai artio egin tuzu nik nahi nintuen guziak. Orai ere berdin... Hatxemandut gizon geia paregabekoa... Ene Gaston xarmanta... Horekin eta horekin baxharri nahi dut ezkondu... Eta ama ez duzu zuk trabarik emanen ene zorionari

AMA: Soazo peraz, eta ondoan jin ene ikhusterat

ELOIX: Ba, eta esposeko egunaz... aphairuaz aiphu eginen dugu

AMA: (*sortant*) Othoi segi zazu

MARGOT: Ba, zaude trankil

ELOIX: (*riant at se moquant*) Hi, aingeru begiralea... Ez da mundu huntan ikhusten ez denik (*regardant la montre*) Leihotik oihera egin zan Delfinari erna dadin...

SCENE VI

Kattine (*la bonne 60 ans*), Eloix, Margot

KATTINA: Andere Eloix, andere Eloix, letra bat badut zuretzat, segur ez baituzu lehena, Frantziako minixtroek ere ez dute hoinbertze. Ba, ene baxerak baliuzte egiteko

ELOIX: (*ouvrant*) Xo Kattina zure easiekin zure dufinek ere buruko min bat bil lezakete balikite mintzatzen;

KATTINA: Milesker andere Eloix, bainan nik ez dakotet giderik hausten zuk bezala

ELOIX: Ho, Gastonen letra... Zer izkirio fina... Bera irudikoa. Hean...

Ma bien chère Eulali, mon amour

Heeeeeee... Zer da hau?... Enetako dea letra hau... (*énervée elle regarde l'enveloppe*) Ba... ene adreez da... So egiza, Margot

MARGOT: Ba, ba zure izena (*elle dit Eloix Madoberri*)

ELOIX: (*lisant*) Ma très chère Eulali (*elle lit avec les yeux, puis tout haut*) Dernière marque d'amitié avant que (*ixilik*) j'écris à ma fiancée Eloix que je ne peux me rendre au cinéma ce soir... Zer da komedia hau... pour cause de laryngite (*ixilik*) après mon mariage avec l'héfitière de (*ixilik*) je ne vous oublierai pas (*ixilik*) signé Gaston Guiberteau... Baina Ama ma, zer da hori; ametsetan niza... Ai ai ai... Ez dut deuskonprenitzen... Margot, leitzan letra hau... Eulari... Eulali nor da hori?...

AMA: (*rentrant*) Ez zazula burua gal haurra. Norbait trufatzen da zutaz

KATTINA: Paperño batek hola nahasten ahal duela jende bat

MARGOT: Deus onik paper hoi... deus onik... Bombe atomique idurikoa...

ELOIX: (*prenant la tête dans ses mains*) (*se mettant en colère*) debru... debru... traidorea... traidorea...

KATTINA: Izpiritu gaixtoa zartzen ari dako gure andere Eloixi

ELOIX: (*bousculant Kattina*) Debrua, debrua hura debrua...

KATTINA: Ur benedikatua... Ur benedikatuaren xekha johan naiz

AMA: Xo, xo Eloix ez da debrurik hemen

ELOIX: (*elle bousculs sa mère*) Ze ere haren alde zira orai... Ai, ai, ai, joaiten ari naiz joaiten (*elle tombe évanouie*)

JEANNE MARIE: (*entrant précipitemment*) Gaixo Eloix

AMA: (*nahasia*) Ene haurra hiltzen ari... hiltzen...

KATTINA: Ez, ez etxeko anderia, trenpu xartua da baxharrik, emanen daikot zombait zafrako eta pegar bat botatuko, phiztuko da ba, gure anderea

JEANNE MARIE: Denen artean joan dezagun oherat, han emanen dugu luze luzea, burua apha
aphala (*on l'emporte*)

AMA: Gaixo haurra Eloix. Atzar hadi... Ez hil... Othoi ez hil...

KATTINA: Uste baino phizuago da gure anderea

JEANNE MARIE: Polliki emazu Kattina (*Eau de cologne*)

ACTE II

SCENE I

Margot, Delfina

MARGOT: (*seule*) Hauxe da saltsa. Ho, ho (*1/2 ahurie 1/2 riant*)

DELFINA: Hara ekhartzen dut andere Eloixi behar dituen zapetak. Aldi huntan satifos...

MARGOT: Axola guti din zapatez memento huntan. Lettra bat ukhanik erdi erhotua dun eta trenpu xartua zagon

DELFINA: Jakin dinat... Karrika guzia ixtorio hortaz bethea dun...

MARGOT: Baya... eta zer diote?...

DELFINA: Huna, Gaston gison gei pullit hori, bizikletaz ximixta bezala erhobat iduri postarat juan dun. Eta bere presan itzuli purdi bat gaiza egin din. Bicycleta hautsi din, bisai zikhindu eta odoletan postan sarthu dun..

MARGOT: Eta gero?...

DELFINA: Postako andereari galdegin zaikon, bezperan postan sarthu zituen bi letraz. Bainan ihardetsi zakon bi oren hartan fakturak joanak zituela

MARGOT: Hauxe da ixtorioa... Komedia ezin sinhetsia.

DELFINA: Beraz, lettra horietarik bat, andere geiarentzat zinan... bertzea neska hits batentzat; orok ezagutua Eulalie... Gizon ergel hori bere presan anvellopaz tronpatu dun eta bati igorri bertzearendako zuen lettra

MARGOT: Ezin sinhetsia... ixtorio hori...

DELFINA: Eta ederrena, Eulalie xirxil horek berak, beria alde guzietan hedatu din. Kartier guzia irriz zagon. Nahi ninken ikhusi Gaston ergel horen muthurñoa... Mandoberriko etxe aldea behar zagon suduraren azpitik phasatu. Orobat erortzea makhurtu zakon

MARGOT: Hots, malhur guziak. Andere gei guti hatxemanen din hemendik goiti... Iduritzen zautan heldu dela banbaratik... Zer oihuak zer nigar hipak...

SCENE II

Margot, Delfina, Kattina, Eloix, Ama

ELOIX: E Ai, ei, ai, ei, Ez da eni bizik gerthatzen halakorik... Dohakabea... Malurus naiz...

AMA: Xo, xo, ene maitea. Kontsola zaite...

ELOIX: Ez da gehiago kontsolamendurik enetako... Fini da. Adios ene zoriona

AMA: Bainan Eloix ez asalda... Kalte eginen dun hire buruari

ELOIX: Hi ere hobendun Margot. Phusatu binun Gaston madarikatu horekin ezkontzerat...

MARGOT: Nik nankiena nolakoa zen... Erran dautan manera pollitak zituela.

ELOIX: (*en colère*) Ez aipha gehisgo izen hori. Izen kaskoin hori... debruak phensatua

MARGOT: Haatik... Gizon xarmanta

ELOIX: Ago ixilik... Ile horiek, mexa horiek debruaren adarrak, begi hoik ifernuko sua... elhe laño horiek satanen hatsa. Ni nun orai; irri egin garri... Ez deusentzat on

AMA: Etzazula holakorik erran

DELFINA: (*timidement*) Andere Eloix eta gure zapetak?... (*elle lui tend los souliers. Eloix les prend et les lance par terre*)

ELOIX: Zapatak?... Ez niz heien arreguran segur. Fini da enetako... (*elle bouscule tout*) Ene burua urkhatuko dut. Adio ama... Banoa... banoa ur handirat ene buruaren botatzerat...

AMA: (*oihuka*) Ez, ez haurra (*en criant*) Kattina... Kattina

SCENE III

(*les mêmes*)

KATTINA: Zer da bada etxeke anderea. Zer dire oihu horiek (*Eloix sortant la bouscule*)

AMA: Ur handitarat nahi du bere burua botatu...

KATTINA: Ur hardian. (*elle la tient*) Burutik baduzia... Hotz hunekin ur handirat??... Bainan hotzarekin dardaran ariko zira... Ur hotzean bethi ur bero galdeka ari da eni bertze orduz

ELOIX: (*se dégageant*) Beraz hartzen dut zure sokak. Selaurian ene burua urkhatuko dut

AMA: Othoi haurra ez holakorik

KATTINA: Zer ene sokak??... Bokhetaren idor arazteko behar ditudanak? Ez ditut zuretako andere Eloix

MARGOT: Hi bezelako andere ederra. Urkhatua... Han dilindan... Mihia berga bat luze... Begiak lanternen pare eta sorginek bezala gorrituak hala itsustua

AMA: Gaixo haurra ez eni aipha holakonk

ELOIX: (*que Kattina tient toujours*) Beraz utz nezazu eta zu Kattina, zazi farmziarat eta ekharrazu cyanure de potassiun boata bat

KATTINA: Zer da hura? bisaiaren goritzeko puira zerbait. Segur baduzu beharra. Nola erran duzu?

ELOIX: Cyanure de potassiun (*oihuka*)

KATTINA: Zer??? Xianu de pota

DELFINA: Bainan hori phozoin izigarria da... Khasu ez hortarik eros Kattina

MARGOT: Halada, Alemanek ere horrekIn phozoindatzen ziuzten beren buruak

KATTINA: Phu... Zikina... Alemanek bezala... Eta gero phozoin horrekin goizeko tripako minak ukhanen dituzu... Hertzeak horopilatuak... Ez holakorik andere Eloix

ELOIX: Beraz zer eginen dut?... Ez niz gehiago hemen egondo. Ez nezake ene burua jasan... Ah... Baniz... Ama adios sekulakotz sarthuko niz komentuan (*ama oihuka khexu, Kattalin karkailaz irriz*)

AMA: Ez holakorik... Ez holakorik... debekatzen dautzut komentuan sartzea gain gainetik haur malurusa

KATTINA: (*Iriz urratua*) Ez beldurrik izan etxeke anderea, ez beldurrik izan

ELOIX: Ba, hemendik urrun urrun... Ez sekulan etxerat itzultzekotan

AMA: Jandarmeak igorriko dautzut handik athearazteko

KATTINA: Ez duzu beharrik izanen etxeke anderea... Andere hau goiz guziez bortz orenetan jeikia... Zer aperantzia

MARGOT: Eta obeditu behar à M^{me} la Supérieure

DELFINA: Orenak eta orenak othoitzean

KATTINA: Eta ixil ixila egoitea... eta penitentziak... Ha, ha, ha

AMA: Ez dut nahi holakorik, ez dut nahi

ELOIX: Ama trixtea ez dautzou sekulan deusik debekatu orai arte...

KATTINA: Etxeko anderea ez griña hortako, ez du ez komentuan sarthuko

ELOIX: Zer eginen dut bada... Zer eginen eradazit?

KATTINA: Bertze gizon gei bat hatxemanen eta plantakoa gero hura

MARGOT: Zer uste duzu Kattina. Holako bihotz mina izan eta kurri ditakela berriz gizon gei baten ondolik...

ELOIX: (*pleurant*) ha, ha, ha

KATTINA: Othoi andere Eloix ez asalda. Oxtian ez zinintuen Delfinak ekharri zapeta heik gostuak... Brau... botatu dituztu eta bertze pare bat ekhar arazi... Ez dea hala Delfina?...

DELFINA: Ba, eta hautak ditu orai

KATTINA: Beraz hala hala zinuen gizon geia, jaun futre bat... igor azu fera futro eta har bertze bat...

DELFINA: Bai eta funtsezkoa gero

AMA: Gaixo Kattina... Badugu zure beharra

KATTINA: Beraz andere Eloix amets beltz horiek utzirik, jar zaite hemen eta ekhar etxeko huntarat senhar gei bat plantakua... Hea Delfina zapetak nola tuen orai... Nik arte hortin inen dakot tisana xorta bat à l'eau de menthe zeinen ezititzeko... eta andere horier dute presa bat, badut oraino poxiño bat xokhoan...

AMA: Ontsa phentsatua Kattina. Danen artean kontsolatuko dugu

SCENE IV

ELOIX: Ah zer pazientzia behar den mundu huntan... Zoazi pulliki Delfina. Ez dautazu munik eginen zapeta horiekin...

DELFINA: Ez anderea ez. Handixko hartu ditut ikhisis besten eskasa

KATTINA: Bai, haia nion zapetez gizon geiez bezala

MARGOT: Gure Kattina horek ederrak atheratzen dauzkigu

KATTINA: Ba, guzia da hauta onaren egitea eta ez itsutuki joaitea lehen biliarroaren besoetarat

DELFINA: Aski hortarik Kattina...

(*on frappe timidement*)

AMA: Kattina, ikhus azu leihotik nor den hor

MARGOT: Herabetasun zerbait badu bortha joile horrek

KATTINA: Xo, xo, jaun bat... Gaston behar bada...

ELOIX: (*asaldatua*) Zer?... Hor diozu... Gaston?... Gaston madarikatu hura?... Ama, ama aita zenaren harmorioko gakhoa emazu fite, fite

AMA: Zerendako??? Haurra?...

ELOIX: Han da errebolbera

TOUTES: Oh, oh, oh...

ELOIX: (*Ama inharrosiz*) Ba, ihizi horie garbitu behar dut

AMA: Bainan ez dut enekin

ELOIX: Emazu bada, emazu ez du eskapurik fripun horek...

AMA: Haurra aspaldi du osebak joana duela harma hori

MARGOT: Urruski

DELFINA: Beharrik

KATTINA: (*arrive avec una cruche d'eau*) Oizu anderea. Emakozu oilar hori trenpaldi bat ona... Frexkatuko da agian

ELOIX: (*laster betan leihorat*) Errebolberaren eskasean zer nahi on zaut

GASTON: (*on entend dans la coulisse*) Andere Eloix barkha ene lettra

ELOIX: (*criant*) Zu? Hor? Atrebitua

DELFINA: Othoi... Othoi... Barkha... Espres

ELOIX: Gizon dripuna... Zikhina... Ez zaitut ez hilen... Bainan hau (*elle lance l'eau et la cruche avec*) eta urrun hemendik ifernuko debrua

KATTINA: Oh, ene pegarra hautsi... aurthiki du... ai, ai, ai. Emanen nintuen gogotik hogoi gizon gei pegarren ordein... Zer egin duzu Eloix

ELOIX: Zer egin dutan... Gizon zarpail hori aurthiki dakot pegarra. Maluruski ez dakot naski burua hautsi...

KATTINA: Ez duzu haren burua hautsi, bainan ene pegarra, hogoi urthe huntan enea zen pegarra

ELOIX: Axola gutik dut ori zure pegarra.

MARGOT: Haatik kasko ganean hatxeman bahu?

ELOIX: Etzakinat kasko ganean ala zangoan hatxeman dutan, denan den maikhuka joana dun gure ezkaratzetik??... Debruak ereman dezala

KATTINA: Ez holakorik erran...

ELOIX: Bizi naizeno ez niz segur haren ondotik ibiliko. Ez nute berriz ikhusiko «au dancing des Tilleurs argentés». Holako xoriak han aurkhitzen direnaz ganean...

AMA: Enuen bertzerik desiratsen

KATTINA: Beraz nik ene pegarrari adios egin diotan bezala... Zuk ere hala, hala andere Eloix

ELOIX: Ez grina eta ez nigarririk egin pegarraz Kattina, bertze bat pagatuko datzu ederragokoa

KATTINA: Zuk ere hala. hala andere Eloix, hatxemango duzu gizon gei bat Gaston baino galantagoa

OROK: Biba zu Kattina

ELOIX: Mila esker Kattina, urhezko elheak dituztu... Bainan nundik ezagutuko dut paregabeko gizon gei bat... Zapeta pare bat ez delarrik untsa bertze pare bat hartzen da... Hala, hala pegar bat... Bainan gizon gei bat

KATTINA: Nik ez dakit munduko merri handirik, bainan badira oraino muthiko gazte plantakoak. Ez etsi andere Eloix hatxemanen duzu

DELFINA: Eta aditu duzia berri handi hori, «Frantses gastellondokoa espotzatzen zela ilhunberriko neskatxa batexin, non ohartu baita, eskuak xuri eta frango delikatuak zituela... behartzak bethi gorritz thindatuak... Ezpainak berdin eta bertzela frango minbera...

MARGOT: Eta gero?...

DELFINA: Muthikoak egin din, etzuela etxean ahalko potret beharrik, esku xuri, delikati mediku phazka. Halakoekin supaster hitza eta kozin friko onik ez... eta jendea khexu... Eta iihunberrikoa utzi din ilhunberrin

TOUTES: Arrazoina

ELOIX: Halaz, orduan hemendik aitzina, ama eni etxeko lanen egitea... Nik baxerak

KATTINA: xukhatuko... Nik ikhusiko... Ur beroan haatik... Bakhotxak beria

ELOIX: Bainan behar ditut eskuak hainbat beltzu... Haatik helduden astetik joanen niz à l'école ménagère, plat on guzien ikhasterat

AMA: (*l'embrassat*) Ene haurra

MARGOT: Oxtian ez dautzi erran, bainan nik aditu dut Kaiet haizpurri elhetan sarthu dela Maxondoko Martxelinarekin

DELFINA: Eta... Margot... Afera ez dun urrun joan... Zertako?...

MARGOT: Martxalina hori, neskatoko handia, haro handikoa, jadanik gizon gaztea manatu nahi...

GUZIEK: Orduan?...

MARGOT: Orduan, Kaiet eran din, ni nere xokoan ez dut tenpesta beharrik. Emazte kopeta gora elhea gorago galerna etxean. Ni nahi naiz han kapitain gure aita zena bezala

DELFINA: Ederki. Ebanjelioak ere hala dio

ELOIX: Oh ama, ni nahi niz uhik izan. Ez dautzut ez gehiago elhe bixixko horietarik erranen.... eta obedituko zaitut... Bainan zorigaitzez ez dakizu manatzen...

KATTINA: Zer egia... Alaba zen ba manatzale...

ELOIX: Ez dautazu sekulan deus manatu... Kattalin beharko duzu eran amari noiz behar din manatu

AMA: On haur xarmanta

KATTINA: Balakatzen badaki ba, bertzerik deus

JEANNE MARIE: (*rentrant*) Heldu nizauzi berri handi batekin, jakin duzia. Manex inthaltzekoa ezpos gei zela EULALIE perlin bordakoarekin. Berrikitan hautsi da ezkontza hori

MARGOT: Khosu zerbait alainan

JEANNE MARIE: Huna, gure Manex ohartu da Eulalie hori lakhet zakola kanpoan etxean gutixko ageri zela. Denekin konplimendu hunat, konplimendu harat, kanpoko aferez burua hantua eta etxekoei axola guti

MARGOT: Hor ere saltsa jastatu gabe gure gizona ase a dudarik gabe?...

JEANNE MARIE: Erran duguna, Manex laster ohartu da zer emazte zindaken eta zion: Gure andere hori urxo kanpoan eta behar bada bele barnean, beraz bego kanpoan

DENEK: Ontsa hori

ELOIX: Ez niz ez Eulalie idurikoa izanen

MARGOT: Ba, aski izan baitzira orai artio

ELOIX: Ez dun ez deus erraitekorik Margot adixkidea hire buruari behatu eta. Beraz hemendik harat izanen gira etxe barneko eta kanpoaz guti arreguratuko. Arengura gehiago izanen dugu gure larnez, aphaiztea gure egoitza, izan dadin egiazko lakhet lekhua

JEANNE MARIE: Ba eta xoriak izan diton kayolen idurikoak

ELOIX: Ba, halakoetarik izanen gira Jainkoari esner... Baliosak, langileak, goxoak... alegerak

KATTINA: Ez da goizegi

ELOIX: Bainan Kattina horiek bezala hein han bat alegeratsun behar da etxean

KATTINA: Orduan ez duzue kutitzerik izanen gizon geien ondolik, Prestuenak jinen zauzkitzue xeka... Hauta izanen duzue...

ELOIX: Beraz izan gaiten hautuzko andere geiak
(«*des fiancées modeles*»)